



Jon Corres - Unai Zamorano

Aixerrota BHI, 14-15

Aurkibidea

● Harkaitz Cano	3
● Sarrera	4
● <i>Twist</i>	
○ Kokapena	4
○ Gaia	4
○ Argumentua	4
○ Istorioa	5
○ Pertsonaiak	8
○ Egituraketa	10
○ Baliabideak	10
● Iritzia	11
● Webgrafia	12

HARKAITZ CANO

Harkaitz Cano Lasarten jaio zen 1975ean. Donostian burutu zituen zuzenbide ikasketak, baina idaztea izan du beti ogibide. Zuzenbidean lizentziaduna da. Mota guztietako lanak egin ditu: ipuinak, eleberria, poesia, kronikak, haur eta gazte literatura, baita itzulpenak ere. New Yorken bolada batean bizi izan zenez, hiri hori sarritan agertu da bere liburuetan. 1992an *Imajina Ezazu Euskadi*, 1993an *Donostia Hiria* eta 1998an *Ignacio Aldecoa* sariak irabazi zituen, eta Euskadi Literatura Saria bi aldiz jaso ditu: 2005ean, *Belarraren ahoa*, eta 2012an, *Twist* eleberriengatik.



Twist nobela (2011) da argitaratu duen fikziozko azken literatur lana. *Beluna jazz* (1996) eta *Pasaia blues* (1999) eleberriak, *Belarraren ahoa* (2004) ukronia, *Neguko zirkua* (2005) ipuin bilduma eta irailaren 11ko erasoan aurretiko New Yorkeko bere egonaldian mamitutako *Piano gainean gosaltzen* (2000) kronika ere argitaratu ditu, besteak beste. Hiri horrekiko bere harremanaren fruitu izan zen, halaber, *Norbait dabil sute-eskaileran* (2001) poema bilduma. Hamar urte beranduago heldu zen gaztelaniaz idatzitako poema liburu bat: *Compro oro* (2011). Telebista eta komiki gidoilari gisa aritua da, eta irudiaren munduarekiko bere kezka aletu zituen saiakera batean: *Zinea eta literatura: begiaren ajeak* (2008).

Hanif Kureishi eta Allen Ginsberg euskaratzeaz gain, bera arduratu izan da eskuarki bere lanetako asko autoitzultzeaz ("etengabea da berridazketaren tentazioa"). Haur literatura ere idazten du tarteka. Diziplina ezberdinen arteko nahasketarako bere joeraren erakusle dira, bestalde, hainbat artista plastiko, musikari eta dantzarekin elkarlanean burututako egitasmoak. Nederlanderaz, galegoz, grezieraz, ingelesez, gaztelaniaz, errusieraz, alemanez eta italieraz irakur daitezke bere liburuak.

SARRERA

Twist 2011n argitaratutako eta Harkaitz Canok idatzitako eleberria da. Istorioa, Euskal Herrian kokatzen da, nahiz eta gertaera batzuk Espainian edo munduko beste toki batzuetan izan, eta denbora-tarte luze baten zehar gertatzen da, 80eko hamarkadatik gaur egunerarte. Lasa eta Zabalaren istorioarekin zerikusi handia duen nobela da hau, ETAko kide ohi baten bizitza kontatzen baitu: bere bi lagun eta taldekideak desagertu eta geroko bere bizitza, baita berearekin nahasten diren pertsonen bizitzen zatiak. Kontraste handiko nobela da hau; izan ere, zati poetikoak eta hizkuntzan aberatsak beste hizkera gogorragoa erabiltzen duten eta *pop* kulturari buruzko erreferentziaz beterik dauden beste zati batzuekin nahasten direlako. *Twist* izena istorioaren barruan gertatzen diren ustekabeko aldaketei zor diezaieke, baita ere istorioaren egitura bihurriari ere, hau ez baitu egitura lineal bat jarraitzen.

TWIST

KOKAPENA

Nobelaren istorioa 80eko hamarkadan hasten da Euskal Herrian, eta gaur egun (edo 2011n, idazlea nobela argitaratu zuen urtean) amaitzen da. Orokorrean Euskal Herrian gertatzen da, baina gertaera batzuk Mexikon, Frantzian edo Espainian dute kokapena. Istorioaren protagonista Diego Lazkano da, antzinako ETAko kidea izan zen idazlea. Bere bizitzak 80ko hamarkadan ETArekin eta GALaren arteko gerra irudikatzen du, baina botere gehiegikeriei eta manipulazio mediatikoari buruzko salaketa egiteko ere balio du, baita adiskidetasunari buruzko gogoeta egiteko ere.

GAIA

Adiskidetasuna, garai sozio-politiko ezegonkor batean sortutakoa eta nagusitan horri buruzko hausnarketa.

ARGUMENTUA

Diego Lazkano 80ko hamarkadan ETAko kidea izan zen, bere bi adiskide Soto eta Zeberioarekin. Atxilotu, torturatu eta bere bi lagunak salatzerantz behartu zuten, eta Diego bizitza osoan zehar hobendun sentitzen da horregatik. Erruduntasunetik libratzeko bere bizitza bere adiskide ohiak biziko zuketen bezala bizitzea erabaki du, eta haien atxiloketa eta torturaren errudunak justiziaren aurrera eramatera konprometitu da.

ISTORIOA

Diego Lazkanoren istorioa

80ko hamarkadan Diego Lazkanok *Egin* egunkarian lan egiten du, bere lagunekin antzerki-talde baten barruan sartuta dagoen bitartean. Ana neskalagunarekin guztiz maiteminduta dago eta Idoia, neskalagun ohia, ahaztuta du. Garai horretan hasten da Diego bere bi lagun Soto eta Zeberiorekin politikoki militatzen eta, azkenean, ETA erakundean sartzen da. Hasieran, zelula lokartu baten parte dela uste du Diegok, baina denbora igaro ahala bahiketetan parte hartzen du.

Bera ere GALeko talde batek bahitzen du eta bere lagunak ezkutalekua salatzeri behartzen dute, torturen bidez. Lazkanok basera bueltatzean bere lagunak ez ditu aurkitzen eta, bere erantzukizuna onartuta, bere bizitza lagunena izango balitz bezala bizitzea zin egiten du. Ondoren, militantzia utzi eta Frantziara alde egiten du, bere neskalagunari ezta agur esan gabe, eta Euskal Herrira bueltatzean idazle bihurtzen da.

Bere lagun Soto antzerkilarian idazle bikaina zenez, Lazkano bere obrak amaitzeari eta nobelatzeari ekiten dio, idazle bezala erreputazio handia irabazten. Era berean, bere lagun Zeberioek gustuko zuen neskekin aurkitzen denean, berarekin oheratzen da, lagun desagertuaren omenez. Garai horretan, Diegoren aita modu bitxian portatzen hasten da. Dementzia diagnostikatzen diote medikuek eta egun batean alde egiten du, inoiz ez itzultzeko.

Idoiak, bere neskalagun ohiak, elkarrizketatzen duenean, Diegok eta berak gutxi iraungo duen harremana hasten dute. Diegok bere helduaroan erlazio egonkor bat hasten du Gloriarekin, bere antzerki-talde ohiaren zuzendaria zena, eta Soto eta Zeberioeren heriotza dela eta justizia egitea erabakitzen du. Agirre Sesma abokatuarekin harremanetan jartzen da eta errudunak justiziaren aurrera eramatea lortzen dute. Hala ere, prozesua amaitzear dagoenean, Lazkano xantaiatzen dute errudunak, bere aitari buruzko informazioa emanez eta bere obren iturburua publiko egingo duten mehatxuarekin. Diego Lazkanok xantaia onartzen du eta epaiketan tokatzen zaionean ez du testigantzarik ematen eta horren ordez Mexikora bidaiatzen du bere aitaren bila. Aita aurkitzen duenean, dementziaren kontua gezurra zela aitortzen dio besteak eta dena bizitza berri bat hasteko egin zuela onartzen du. Bere aita bezalako gezurtia ez izatea erabakitzen du, eta horretarako Soto eta Zeberioeren historia kontatzeri konprometitzen da. Hala ere, hori egin baino lehen Glorirari agindu dion antzerkilana itzuli egin behar du. Antzerkilanaren estreinaldian Lazkanoren iragana beraren aurrean aurkezten da, izan ere Ana, gaztetako amodioa, alboan ezartzen zaio. Gainera, bere torturatzailleetako bat aktoreetako bat dela deskubritzen du, eta horrek guztiz

asaldatzen du. Azkenean, Anarekin hitz egin gabe baina bere torturatuileari nor den aitortuz hortik alde egiten du, erdi-garaipen mingots baten sentsazioa utzita.

Idoiaren istorioa

Idoia Diego gaztearen lehen neskalaguna izan zen, bera baino nagusiagoa eta esperientzia handiagoarekin. Hainbat urte eta gero berriz topo egiten dutenean iraganeko sentimenduak pizten dira, Idoiak bere senarra utzi eta elkarrekin erlazio berria hasten dute Diegok eta berak. Hala ere, hasierako irrika azkar amaitzen da, eta Idoia depresioan murgiltzen da, bere kazetaritza lana “El Mundo”rentzako gorrotatzen duelako eta bere harremana Diegorekin okerrera egin duelako. Nahiz eta Idoiak Diego beste gizon batekin engainatu, elkarrekin bizitzen jarraitzen dute; baina egoera hori laster amaitzen da. Idoiak denboraldi bat Frantzian igarotzen du, bere bizitzari norabide berria emateko hausnartzen. Hala ere, etxera bueltatzen denean, bere lanpostua galdu duela komunikatzen diote, eta Diegoren editorearentzako irakurle gisa jardun behar du.

Agirre Sesmaren istorioa

Agirre Sesma abokatuak bitartekari lanetan jardun zuen 80eko hamarkadan eta Diegok Soto eta Zeberorien kasua aurkezten dionean onartzea erabakitzen du. Nahiz eta Diegok azken momentuan ez testifikatu, errudun batzuen kontrako kondena lortzen du.

Fontecharen istorioa

Javier Fontechak politikari sozialista marko politikoan indarra izan zuen 80eko hamarkadan, gerra zikinean parte hartu zuen ere. Ondoren, europar parlamentura “exilioan” bidali zuten eta bueltatzean partiduko buru bihurtzeko kanpaina hasi zuen, nahiz eta oso babestuta ez egon. Hala ere, bere laguntzaile pertsonalarekin afera bat izan ondoren eta partiduak Soto eta Zeberioaren kasuan babesa ematearen truke, helburu hori bertan behera utzi egin behar du. Bera da Lazkano xantaiatzen duena, testifikatu ez dezan.

Pedro Vargasen istorioa

Pedro Vargasek 80ko hamarkadan GALEko kidea izan zen, eta Soto eta Zeberioaren bahiketari eta hilketari parte hartu zuen. Hainbat urte geroago, pairatzen duen minbizia terminalak eta erruduntasunak bultzatuta, bere krimenak onartzen ditu, eta hau erabakigarria da Agirre Sesmaren errudunak justiziaren aurrera eramateko.

Fede Epelderren istorioa

Fede Epelde editorea da, Diego Lazkanoren editorea hain zuzen. Begiaren gaixotasun degeneratibo bat diagnostikatzen diotenean atsekabetzen da, liburuei eta irakurketari dedikaturiko bizia zelako berea, eta suizidio ere kontsideratzen du. Hala ere, bere buruaz beste ez egitea erabakitzen du, eta irakurtzen dion laguntzaile bat bilatzera ekiten dio eta, azkenik, Idoia kontratatzen du, Diegoren neskalagun ohia. ETako kidea izan zen gizon batek ematen dio Lazkanoren plagioaren berri, eta Sotoren originalekin betetako karpeta ematen dio. Karpeta hau Fontechak eta bere gizonek lapurtzen dute, Lazkanori xantaia egiteko.

Gloriaren istorioa

Gloria Soto, Zeberio eta Lazkano sartuta zeuden antzerki taldearen zuzendaria zen. Antzerki taldearen gainbeheraren hasieran lana uztea erabaki zuen eta Bartzelonara joan zen bizitzera. Urte askotan bizi zen han eta Lazkanorekin kontaktuan jarraitu zuen eta, denborarekin, berarekin harreman sentimental bat hasten du. Hala ere, bere arteak ez dio irabazi handirik eman eta drogarekin trafikatu behar izan du, dirua ateratzeko. Bere aita eskuindarrak fiantzak ordaindu dizkio harrapatu dutenean eta, hori dela eta, berarekin zorretan egoteagatik, berriro antzezlanak zuzentzera bueltatu behar izaten du. Bere aita hiltzen denean konturatzen da zein muturreraino heltzen zen bere fanatismoa, nazien objektuak kolekzionatzen zituelako. Objektuez desegin eta Francoren tapiz batekin artelan erraldoia egiten du, non sagu batzuek suntsitzen dute.

Diego Lazkanoren aitaren istorioa

Diego Lazkanoren aitak dementzia zuelakoaren plantak egin zituen, bere familia utzi eta alde egiteko. Bizitza berria hasten du Mexikon, eta inork ez du beraren berri Diego Mexikora joan eta berarekin aurkitzen den arte. Topaketa horretan semeari bera bezalako gezurtia dela aurpegiatzen dio eta besteak bere bizitzatik kanporatuko duela zin egiten du.

PERTSONAIAK

Diego Lazkano

Ofizioz idazlea da, orain bizitza lasaia darama, baina 80ko hamarkadan jasotako zenbait gertakizun oraindik ere gogoan ditu. Gaztetan, Gloriak zuzendutako antzerki taldean sartu zen. Antzerki talde horretan Soto eta Zeberio ezagutzen ditu, hirurak lagun minak egiten dira, baina Lazkanok torturapean Soto eta Zeberio zalatzen ditu. Hori dela eta, poliziek Soto eta Zeberio desagertarazten dituzte. Hauen ausentziak bere bizitza betiko aldatuko du, zeren eta Lazkanok egingo dituen akzio gehienak Soto eta Zeberioaren oroimenean izango direlako. Gertaeran horren aurretik Lazkano euskal independentziaren aldeko borrokan parte hartzen zuen.

Gloria

Gloriak ile motza du, urdintzeko bidean eta azal beltzarana. Gloria ez dago ezkondua, ez du haurrik, noizbehinko bikoteak besterik ez. Bartzelonan bizi da, Montjuic auzoko apartamentu batean. Ez du bere familiarekin harreman handirik bi arrazoigatik, bere aita faxista kontserbadorea delako eta askatasun nahia. Diego Lazkano bere lagun minarekin harreman sentimal bat dauka, eta arteaz, politikaz eta gai pertsonaletaz hitz egitea gogoko du. Gaztetan Lazkano, Soto eta Zeberio ezagutu zituen, haiek zeuden antzerki taldearen zuzendaria zelako. Honetaz gain, Gloria margolaria da. Artelanik ez saltzeak, drogen munduan gutxinaka sartzea eragiten dio, dirua lortu behar du eta. Hori dela eta, aitarekin zor ekonomiko handiak zituen, baina hau hiltzean konturatu zen faxista erradikala izan zela.

Soto eta Zeberio

Soto eta Zeberio Lazkanoren lagun minak izan ziren. Soto alaia, berbatia eta orijinala zen, Zeberio, aldiz, ixila, lasaia eta praktikoa. Biek Gloriaren antzerkian parte hartzen zuten, Lazkanorekin batera. ETAko partaideak izan ziren, eta horren ondorioz Guardia Zibilak hil eta desagerrarazi egin zituzten. Hil eta gero Lazkanoren bizitzan eragin handia izan zuten, honek beti buruan zituelako.

Pedro Vargas

80ko hamarkadan GALEko kidea izan zen. Rodrigo Mesaren aginduak betetzen zituen, ez zuen haren kabuz erabakiak hartzen edo pentsatzen. Honen ondorioz, Mesak aginduta, Soto eta Zeberioaren bahiketari eta hilketari parte hartu zuen. Sentitzen zuen errundutasunak bultzatuta, bera egindako krimenak onartu zituen. Akzio hau Aguirre Sismak justiziaren aurrera eramatea eragin zuen.

Gabriel Lazkano

Diegoren aita da, Mexikon bizi dena. Plantak egin zituen eta bere inguruko guztiei erotu egin zela sinetsiarazi egin zien, eta aitzaki horrekin bere familia utzi eta alde egin zuen. Pertsona oso gezurtia da, Lazkanorekin izan zuen topaketan ikusten den bezala.

Aguirre Sesma

Abokatua izan zen, 80ko hamarkadan jardun zuena. Zeberio eta Sotoren kasua onartu zuen Lazkanok aurkeztu zionean. Epaiketaren amaieran lortu zuen zenbait errudun kondena izatea. Nahiz eta zapo itxuar izan, pertsona oso jakintsua eta azkarra zen.

Idoia

Diegok izan zuen lehenengo neskalaguna izan zen, bera baino bi urte zaharragoa, eta ofizioz kazetaria da. Urte batzuk eta gero berriz topo egin zuten eta aspaldi izan zuen sentimenduak berpiztu ziren. Bere senarra utzi eta erlazio berri bat hasi zuten Diegok eta berak. Bere lanean ez zegoen eroso, ideologia ezberdineko egunkari batentzako egiten baitzuen lan, eta lana utzi eta gero Fede Epelderentzako irakurle lan egiten du. Idoia pertsona sutsua da, eta bere burua nondik eraman ez du argi ikusten. Hori dela eta, hainbat erabaki txar hartzen ditu bere bizitza egonkortu arte.

Fede Epelde

Fede editorea izan zen, Diego Lazkanoren editorea hain zuzen. Begien gaixotasun degeneratibo bat diagnostikatzeko diotenean, berari liburuak irakurtzeko pertsona bat bilatzen du, eta azkenean Idoia kontratatzen du. Gizon erretxina da, baina emakume kontuetan oso ona eta sutsua, eta bere bizitza osoa liburuen inguruan biraka egon da, horregatik, bere begien gaixotasunari buruz jakitean izugarri atsekabetzen da eta bere buruaz beste egitea ere pentsatzen du.

Javier Fontecha

80ko hamarkadan marko politikoan indarra izan zuen politikari sozialista izan zen, gerra zikinean parte hartu zuena. Lazkano bere kontra testifikatu ez dezan, xantaiatu zuen. Hasieran pertsona fidakorra zen, baina gertakari batzuk zirela eta gehiegizko konfiantza hori galdu zuen. Bakarrik zegoela sentitzen zuen, bere gobernuoek ez ziotelako laguntzarik ematen eta bere maitaleak utzi zuelako.

EGITURAKETA

Eleberria modu ez-lineal batean dago egituratuta. Iragana eta orainaldia nahasten dira uneoro, modu korapilatsuan. Nahiz eta idazleak *flashback*-ez baliatu istorioa kontatzeko, hauek ez dute inolako sarrerarik eta kapitulu berean iraganeko istorioa eta orainaldikoa koexistitzen dira, kontrapunto berezi bat sortzen. Horrez gain, idazleak kapitulu bakoitzean pertsonaia konkretu baten istorioan arreta jartzen duela dirudi (2. kapituluaz Lazkanoren gaztaroan, 3. kapituluaz Agirre Sesmaren bizitzan, 4. kapituluaz GALeko kideen eta Fontecharen esperientzian...). Lehenengo eta azken kapituluak, hala ere, nolabaiteko parentesia dira istorio nagusian: lehenengo kapituluaz Soto eta Zeberioaren lurperaketa azaltzen duen bakarrizketa itzela da, eta azkena Lazkanoren retrospektiba lagunekin bizitako momentuei begira. Honekin, idazleak denbora atzera joaten den eta gauzak hobetzen diren nolabaiteko efektua lortzen du, izan ere, hasierako lurperaketaren egoeratik amaierako oroitzapen zorionsuetara pasatzen da istorioa.

BALIABIDEAK

Kontraste handiko liburua da *Twist*. Alde batetik, lengoi arrunta eta batzuetan zakarra erabiltzen du idazleak, baina hori sakontasun handiko eta estilo fineko pasarteekin nahasten du uneoro. Autoreak erabiltzen duen errealismo “zikin”a oso estilo landua da. Lehenengo pasarte horren adibide egokiena da, beharbada. Erdarakadak, anglizismoak, *pop* kulturari buruzko erreferentziak... barne bakarrizketarekin, errealismo magikoarekin eta kontrapuntoarekin nahasten dira. Barne bakarrizketa idazlearen baliabiderik garrantzitsuenetarikoa da, uneoro baitago narratzaile omniszientea Lazkanoren edo beste bigarren mailako pertsonaien ideiak modu horretan aurkezten. Hau egiteko oso ondo definitutako pertsonaiak behar ditu idazleak, pertsonalitate propio eta zehatz batekin, eta haien hitz egiteko modua (hika edo zuka erabiliz, 7. kapituluaz Lazkanoren eta bere aitaren arteko elkarrizketan ikusten den bezala) bere izaerarekin bat egin behar du, eta modu bikainean lortzen du hori Harkaitz Canok. Elkarrizketako pasarteak narrazioz beteriko pasarte dentsoekin nahasten ditu era berean idazleak, beste motatako kontrastea lortzen, baina ez du denbora askorik galtzen deskripzio landuak egiten. Idazteko modu poetikoa (metaforekin, errepikapenekin, hausnarketa sakonekin...) eta modu zakarra era bikainean batzen ditu egileak, kontraste handiko eleberri bat lortzen. Idazleak maiztasunez erabiltzen du *flashback* teknika, etengabe iraganera eta berriz orainera itzuliz. Honekin lortzen du gertakizun batzuk birgogoratzea eta pertsonai baten izaera sakonago garatzea.

IRITZIA

Twist nobela bikaina da, eta hori baieztatzen dute jasotako sariak eta kritika positiboak. Modu itzelean kontatzen du Harkaitz Canok Lasa eta Zabalaren antzeko istorio hunkigarria, politikan gehiegi sartu gabe eta 80ko hamarkadan bizi izan zen gerra zikin horretan parte hartu zuten guztien erruduntasuna eta sufrimendua islatzen, bietako bando bat ahaztu gabe. Cano ez da gehiegi zentratzen gatazka armatuan, eta garrantzi handiagoa ematen dio erruduntasunari, saminari eta maitasunari, traizioari eta memoriari eta gauza guztien gainetik, adiskidetasunari. Gainera, idazleak nobela aprobetxatzen du botere gehiegikeriei eta manipulazio informatiboari buruzko kritika zorrotza egiteko.

Baina nobela honen kalitatea ez da bakarrik bere gai hunkigarrien ondorioa; Harkaitz Canok erabilitako teknikak dira eleberri hau hain ona egiten dutenak. *Twisten* ezaugarriak bereziana bere kontrasteak dira: estilozkoak, erritmozkoak, denborazkoak... Idazlea oraina eta iraganaren artean saltoka dabil denbora guztian, narrazio trinkoko pasarteetan eta elkarrizketa biziko pasarteetan artean dantzatzen du bere idazkerak, barne gogoetak sakonak ekintza azkarrekin txandakatzen ditu... Horrek guztiak irakurlearen adimena mugara eramaten du, denbora guztian baitago egoera berriei egokitzen. Nahiz eta pixka bat korapilatsua izan, Canok badaki zer egiten duen, eta ez da bereziki konplikatu istorioaren jarraipena egitea.

Pertsonaiak ere muturrekoak eta ezberdinak dira eta, nahiz eta batzuetan irreal samar iruditu (Gloriaren aita nazia, aktore torturatzailea edo Lazkanoren aita gezurtia), bizitzaren ikuspuntu ezberdinak aurkezteko balio dute, konplexuak eta atipikoak izateagatik. Kritiko batzuen ustez, nobela indarra galtzen du, eta bertan dago bere akatsik handiena. Esan beharra dago lehen kapituluak itzela dela, eta bertatik aurrera nobela erabat aldatzen dela, baina horrek ez du esan nahi txarrera egiten duenik. Lehen kapituluak idazleak egoera erreal bat (Soto eta Zeberioaren lurperaketa) egoera ez-errealarekin nahasten ditu. Errealismo magiko hori erabiliz lortzen du eskeleto bat lurpetik altxatzea eta bizidun sentiaraztea.

Era berean, 80ko hamarkadaren erradiografia itzela egiten du. Kritika guztiak ados daude kapitulu honen bikaintasuna azpimarratzean, baina liburuaren detraktore batzuen ustez, honek kalitatea galtzen du hain hasiera ona eta gero. Esan beharra dago istorioa guztiz aldatzen dela, izan ere, lehenengo kapitulu horren ostean, idazlea gehiago zentratzen da pertsonaietan eta haien istorio partikularretan, baina hau ez da kalitatea galtzea, ez horixe, hau istorio bat kontatzea da, pertsonai bakoitzaren sentimenduetan atentzia ipintzen. Ez da erraza, alabaina, lehen kapituluko estiloa mantenduta istorio bat kontatzea, eta Harkaitz Canok erabilitako teknikak aurrerantzean ez dira gauza

makala. Horrez gain, badirudi liburua horrela hasteak berebiziko garrantzia duela, Soto eta Zeberioaren heriotzarekin hasten delako eta Lazkanoren oroitzapenekin amaitzen delako, non hiru lagunak bizitzaz beterik zeuden. Horrela, nolabaiteko simetria alderantzikatua lortzen du eleberrian.

Oro har, *Twist* nobela bikaina da, nahiz eta konplexua eta korapilatsua izan, bere konplexutasunak hain zuzen, bere gai hunkigarriari eta bere bihozberatasunari lotuta, delako bere kalitatearen iturria.

WEBGRAFIA

<http://www.harkaitzcano.com>

<http://www.basqueliterature.com>

<http://atalak.net/ikasgela/nola-egin/il-gida>

<http://www.rtve.es>

<http://euskaljakintzaaditza.weebly.com>

<http://www1.euskadi.net/morris>

<http://www.xuxen.com>

www.euskara.euskadi.net

<http://www.susa-literatura.com>

<http://unlibroaldia.blogspot.com>

<http://www.diariovasco.com>